

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEKO, DINAMIZATZEKO, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEKO ETA KUDEATZEKO

1.- XEDEA:

Oinarri hauen xedea da baldintza teknikoak jartzea Zarauzko Udalaren Emakumeen Etxearen proiektua martxan jarri, bertan garatuko diren programak eta zerbitzuak prestatu eta, irekitzen denean, dinamizatu eta kudeatzeko zerbitzua esleitzeko.

2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK:

Zarauzko Emakumeen Etxeko proiektuak jasotzen dituen helburuak betetzea, eta horretarako beharrezkoak diren programak, zerbitzuak, jarduerak, eta abar diseinatzea, antolatzea eta dinamizatzea.

Zarauzko Emakumeen Etxea Parekidetasun Departamentuaren barruan kokatuko den zerbitzu bat da. Hauek dira bere helburu nagusienak:

- * Kolektibo bezala, espazio bat edukitzea, emakumeok elkartzeko eta indartzeko.
- * Belaunaldi desberdinetako emakumeon arteko sareak sustatzea.
- * Emakumeok maila pertsonalean eta kolektiboan hazten eta hezten laguntzea.
- * Emakumeon parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzea bizitzako arlo guztietan.
- * Emakumeon ahalduntzea eta autonomia lantzea. Eta feminismoan sakontzea.
- * Indarkeria sexistaren kontzientzia hartu eta errotik ezabatze bideak egitea.
- * Emakume desberdinen ekarpenak jaso eta horiei balioa emateko espazio bat izatea.
- * Fisikoki eta sinbolikoki, herrian emakumeentzako erreferentziazko espazio bat izatea.

3.- ZERBITZUAREN FUNTZIOAK:

Emakumeen Etxea ireki baino lehen:

Parekidetasun teknikariarekin elkarlanean:

- * Bertan eskainiko diren zerbitzuak, programak, jarduerak eta abar prestatzea eta kudeatzea.
- * Partaidetza prozesuan parte hartu duten emakumeekin lanean jarraitzea, proiektua osatzeko eta kudeaketa zehazteko bilerak edo foroak antolatzen.

Emakumeen Etxea ireki ondoren:

- * Harrera egitea.
- * Etxearen erabilera koordinatzea (ordutegiak, taldeak, baliabideak, etab.).
- * Etxean egingo diren zerbitzuak eta programak prestatzea, zabaltzea, zuzentzea, kudeatzea eta ebaluatzea.
- * Emakumeen elkarteekin koordinatzea, etxearen araudia betetzeko eta elkarlana sustatzeko.
- * Zarauzko Berdintasun Kontseiluan parte hartzea.

- * Etxean sortuko diren organoetan parte hartzea.
- * Parekidetasun teknikariarekin koordinatzea, zerbitzuak eta programak kontratatzea eta ebaluazio txostena aurkeztea.

4.- ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA:

Enpresa edo entitate esleipendunak Emakumeen Etxean egingo ditu lanak. Halere, etxea ireki arte egun Parekidetasun Departamentua dagoen lekolean egongo da (Zigordia kalea 33, 1. solairua).

Zerbitzu hau emateak, besteak beste, ondorengo konpromiso eta betebeharrak eskatzen ditu:

4.1. Zarauzko Udalaren betebeharrak:

- 1) Beharrezko baliabideak eta ekipamendua jartzea.
- 1) Programak zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatzea, Parekidetasun Departamentuaren bitartez.
- 2) Zerbitzuaren jarraipena. Zerbitzua zuzenduko duen pertsonarekin koordinatzea eta elkartzea, zerbitzuaren nondik norakoak adosteko eta jarraipena egiteko.

Zerbitzuaren kontrola:

Era berean, Parekidetasun Departamentuak ondorengo eskumenak izango ditu:

- * Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu; bere kalitatea ebaluatu.
- * Zerbitzuaren esleipendunak dinamizazio ekintzetarako proposatutako programazioa aztertu eta gainbegiratu, eta beharrezkoak diren aldaketak proposatu, izaera teknikoko inguruabarrengatik edo jendearen interesagatik.

Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Parekidetasun Departamentuko arduradunak, enpresa edo entitate esleipendunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak betetzen diren ere ikuskatu ahal izango ditu (ordutegiak...).

4.2. Esleipendunaren betebeharrak:

Jarduerei dagokienez:

- * Emakumeen Etxean emango diren zerbitzuak eta programak prestatzea.
- * Emakumeen elkarteekin, parte-hartze prozesuan parte hartu duten emakumeekin eta Berdintasun Kontseiluko emakumeekin etxearen funtzionamendua, zerbitzuak, kudeaketa eta abar lantzen jarraitzeko bileretan parte hartzea.
- * Emakumeen Etxearen zerbitzuaz arduratzea: hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, emanaldiak, irteerak...
- * Antzemandako beharrei erantzuteko egingo diren programak diseinatu eta gauzatzea.
- * Lokal eta bulegoaren txukuntasun eta mantentze-lanen segimendua eta kontrola egitea.

- * Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren kudeaketa eta administrazio betebeharrak egitea.
- * Emakumeen Etxearen harreraz arduratzea.
- * Emakumeak etxera gerturatu daitezten kanpainak diseinatzea eta bideratzea.
- * Ikasturteko programa landu eta hilabeteko programazioa prestatu eta zabaltzea.

Ebaluazioari dagokionez:

- * Urtero balorazio txosten bat egingo da, eta, bertan, honakoen berri emango da: parte-hartzaileak, ikasturtearen nondik norakoak, programazioa, izandako arazoak eta abar. Txosten hori Parekidetasun Departamentuari aurkeztuko zaio.

Parekidetasun Departamentuarekin izan beharreko koordinazio eta kudeaketari dagokionez:

- * Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak antolatu aurretik, Parekidetasun Departamentuaren oniritzia beharko dute.
- * Emakumeen informazio beharrak ezagutu eta asetzeko estrategiak martxan jarriko dira.
- * Erabiltzaileen eskaerak udal teknikariari adieraztea; horiek onartzerakoan kontuan hartuko dira Parekidetasun Departamentuak jarritako irizpideak.
- * Programazio horretan aurreikusi gabeko edozein ekintza egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da Udalaren baimena (Parekidetasun Departamentua).
- * Emakumeen Mahaiko bileretan parte hartzea, behar diren koordinazio-bilerak eginez.
- * Parekidetasun Departamentuak eta enpresa edota entitate esleipendunak funtzionamendurako elkarrekin adostutako irizpide eta jarraibideak betetzea.
- * Elkarteen artean elkarlana sustatzea, herriko baliabideak ezagutaraztea eta bitartekoak jartzea emakumeek herriko ekintzetan parte hartzeko. Hau da, herrian antolatzen diren ekintzetan parte-hartzera bultzatzea.

Eta orokorrean, zerbitzuarekin zerikusia izanik agintzen zaion ezaugarri beretsuko beste edozein jarduera ere.

5.- ZERBITZUEN MAIZTASUNA ETA ORDUTEGIA:

Emakumeen Etxea ireki baino lehen, nagusiki goizeko ordutegian emango da zerbitzua. Enpresa adjudikaziodunak eta Parekidetasun Departamentuko arduradunak hitzartuko dute ordutegi hori.

Etxea ireki ondoren, ordea, ordutegi honetan emango da zerbitzua, aurreikusitakoaren arabera:

Astelehenetik ostiralera:

Goizetan: astean bi egunetan 4 ordu.

Enpresa adjudikaziodunak eta Parekidetasun Departamentuko arduradunak hitzartuko dituzte egunak eta ordutegiak.

Arratsaldeetan: astelehenetik ostiralera (16:00-20:00)

Ordutegia aldatu ahal izango da, sortzen diren beharren arabera eta/edo egiten diren jardueren garapenaren arabera, baldin eta horiekin zerbitzua hobetzen bada, enpresa adjudikaziodunari kalterik eragiten ez bazaio, eta kontratuko bi aldeak ados badaude.

Zerbitzua urte osoan emango da, egun hauetan izan ezik: abuztua, Aste Santua, Pazko Astea eta Gabonak (abenduarien 24tik urtarrilaren 6ra, biak barne). Jaiegun ofizialetan ere ez da zerbitzurik emango.

6.-BITARTEKO MATERIALAK

Esleipendunaren esku jarritako lokal horretako funtzionamendu eta mantentze gastuak (garbiketa, hornidurak, ...) Udalaren kontura izango dira. Esleipendunak administrazio egokiaren printzipioak aplikatuko ditu horien erabileran. Ekipamenduan egin beharreko konponketak, berrikuntzak edo inbertsioak ere Udalak ordainduko ditu. Horiek guztiak inbentario batean jasoko dira, eta kontratuak dirauen bitartean erosten diren elementu inbentariagarriak ere gehitzen joango dira, eta Udalaren esku geldituko dira kontratuaren amaieran. Hornidura horiek egitea Udalak erabakiko du. Utzi diren instalazio eta materialak egoera onean eduki behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Erabilera txarragatik apurtzen diren bitarteko materialak enpresa esleipendunak baldintza berdineko berri batzuegatik ordezkatuko ditu.

Administrazioak enpresa esleipendunaren esku jarriko dituen informazio, agiri, programa informatiko eta bestelako baliabide edo datu guztiak Administrazioarenak dira, eta kontratatutako lanak garatzeko beharrezkoa denean baino ez dira erabiliko edo erreproduzitzeko; enpresa esleipendunak kontratua amaitzean horiek guztiak itzultzeko konpromisoa hartuko du.

